


Itzulpenak eta Lankidetzak



Alfabetatze tekniko

Joxe Ramon Aizpurua

SARRERA

Euskaldun askok —nahiz euskaldunberri nahiz euskaldunzahar— ez dugu aukerarik izan geure ikasketak euskaraz egiteko. Dakiguna eskuharki erdaraz ikasia dugu.

Hau, jakina, euskarak pairatu duen eta oraindik ere pairatzen ari den menpekotasunaren ondorio besterik ez da.

Bestalde, ikastola eta euskal lizeoek ez zuten behar zen euskarazko ikasgai, liburu eta irakurgairik. Ahal izan duten bezala saiatu izan dira irakasleak eguneroko lanean aurkitu izan duten hainbat hutsune betetzen. Azken finean, normalizazio neketsu baten erdiminak dira horiek denak.

Gaztelaniazko, frantseseko edo ingelesezko hiztunek ez dute horrelako problemarik. Hizkuntza hauek ofizialtasuna eta Estatuaren babesasun aspaldirik gertuak izan direnez gero, kultur hizkuntza edo bizimodu modernoak eskatzen duen moduko komunikabide bilakatu dira ezarian-ezarian.

Hizkuntza hauen menpean egon diren beste hizkuntzetako hiztunek, ordea, beren komunitateek duten ezaguerri eta bereizgarri nabarmenena mintzaira dela konturatu direnean, eta

honi gizartean bere eginkizuna betetzeko aukera eman nahi izan diotenean, egungo bizimoduko komunikazio-premiei erantzuteko kamustuta aurkitu dute hizkuntza hori.

Normalizazio-prozesu bati ekin behar izan diote eta normalizazioak, hitz gutxitan esateko, «etapak erretzea» suposatzen du. Honetarako ekintza-multzo bat jarri behar da martxan: hizkuntzaren estandarizazioa eta dialekto desberdinen gainetik gehiengo handi batek kultura landurako barietate gisa onartuko duen barietate estandar baten sorkuntza, hizkuntzaren modernizazioa, literatur jenero eta berbaldimota guztien lanketa, hizkuntzari falta zaion lexikoaren sorkuntza, administrazioarako, irakaskuntzarako eta komunikabideetarako hizkuntzaren egokitzapena, hiztunen artean hizkuntza erabiltzearen kontzientzia piztuko duten publizitate-kanpainak egitea, etab.

Ekintza multzo honi hizkuntz plan-gintza esaten zaio.

Alfabetatze tekniko hizkuntz plan-gintzako ahalegin bat besterik ez da.

Honen helburua, erdaraz ikasia den jendeari bere lanbideko gaiak, ahoz nahiz eskribuz, erraztasun osoz erabiltzen laguntzea da.

1. LANBIDE DESBERDINETARA HIZKUNTZA EGOKITU BEHARRA

Aurreko puntuan aipatutako helburuaren arabera, Alfabetatze Teknikoaren bidez bakoitzak bere lanbidean erabili behar duen hizkuntza landu behar du.

Alfabetatze Teknikoan barrena abiatzeko ezinbestekoa da noski hizkuntza arrunta ongi menperatzea eta gai ezberzituen mailan alfabetatua izatea. Benetako euskaldun izatera iristeko azken urratsa dela esan genezake alfabetatze teknikoak. Euskaldun ez denak lehendabizi euskaldundu egin beharko du eta bai honek eta bai euskara ama-hizkuntza duenak ere alfabetatu egin beharko dute, hizkuntzaren gramatika ikasi eta euskara idatzia ulertzeko eta erabiltzeko prestatu.

Hau lortuta ere, euskaldunak hutsune handia du bere eguneroko bizimoduan denborarik gehiena eramaten dion lanbideko gauzak euskaraz ulertu eta adierazi ezin baditu. Eskakizun hau euskaldun guztiok bete behar dugu benetako euskaldun izateko.

2. HIZKUNTZA TEKNIKO BEREZITUAK ETA HIZKUNTZA ARRUNTA

Bistan da hizkuntza oso modu desberdinetan erabiltzen dela, erabilera horrek duen helburuaren arabera. Ez da berdin hitzegiten eritziak adierazteko, aginduak emateko, eskabideak egiteko, gomendioak egiteko, konpromisoak hartzeko, sentimentuak agertzeko, eta abarretarako.

Berbaldiaren helburua alde batera utzita ere, hizkuntz diferentzia nabarmenak aurki daitezke hitzunez bizi duten egoeraren arabera. Ez dira berdinak ahozko hizkuntza eta idatzia, aldez aurretik prestatu den zerbait esatea eta bapatean pentsatu dena agertzea; ez da berdin hitzegiten aurrez aurre dugun norbaitekin eta telefonoaren

beste aldean dagoenarekin; ez da hizkera berdina erabiltzen gutun eta liburu batean, etab.

Bestalde, berebiziko inportantzia dute ondoko komunikazio moten arteko desberdintasunek:

Eremu jakin bateko espezialistek beren eremu horretako gaiet buruz beren artean duten komunikazioa, hala nola, medikuek medikuekin medikuntzaz, ekonomilariak ekonomilariekin ekonomiaz, sukaldariek sukaldariek sukaldaritzaz, etab. Komunikazio mota honi dagokion hizkera da batez ere hizkera tekniko berezitua edo teknolektoa.

Guztiz bestelakoa da espezialista ez direnek beren artean eremu espezializatu jakin batekoak ez diren arazoez hitz egiteko erabiltzen duten hizkera. Hau hizkera arrunta da.

Bi mutur hauen artean badira tarteko beste komunikazio mota batzu, hala nola, eremu desberdinetako espezialistek disziplinarteko gaiet buruzko elkarrizketan dutena edota eremu jakin bateko espezialistek espezialista ez direnei espezialitate horri buruzko arazoez hitzegiteko erabiltzen dutena. Azken kasu honek oso problema bereziak planteatzen ditu: metereologoak eguraldiaren berri publiko zabalari ematean, medikuak gaisoari hitz egitean, abokatuak bezeroari, etab.

Hizkuntzaren barnean hizkera desberdinak bereiz daitezke, eta bi erataro nagusiki, ukitzen ari garen gaiaren aldetik:

- a) Konparazio diastratikoaren bidez, hau da, baldintzapen sozialek ezarritako desberdintasunen aldetik: gazteen hizkera, ijitoen hizkera, gaizkileen hizkera, unibertsitarien hizkera, etab.
- b) Konparazio diateknikoaren bidez, hau da, lanbide edo espezialitate desberdinei dagozkien hizkerak bereiziz: kirolekako hizkera, medikuntzakoa, hizkera juridikoa, etab.

Errealitatean desberdintasun diastratikoak eta diateknikoak gurutzatu egiten dira eta panorama asko konplikatuzen da. Baina guk dugun helburua kontutan hartuta, konparazio diateknikoa azpimarratzen badugu, hiru arlo bereiziko ditugu:

Hizkera teknikoa: espezialisten artekoa

Hizkera arrunta: espezialista ez direnek eremu jakin batetakoak ez diren arazoei buruz mintzatzeko erabiltzen dutena.

Bi hizkera-mota hauen tarteko hizkerari hizkera hiritartua dei geniezaioke.

Bitza modernoan, teknikaren eta espezialitate desberdinen eragina izugarria denez, ez da harritzekoa bitarteko hizkera-mota honek egunetik egunera garrantzi handiagoa izatea. Pentsatu besterik ez dago automobila-ren mekanikari buruzko elkarrizketak zeinen ugariak diren kaleko hizkuntza arruntean, edota etxetresna elektrikoiei buruzkoak etxean.

Dena den, bitarteko hizkera honen garapena ez da guztiz autonomia, hizkuntza tekniko desberdinen menpekoea baizik.

3. NORMALIZAZIOA ETA HIZKERA TEKNIKO BEREZITUAK. NORMALIZAZIOA ETA ESTANDARDIZAZIOA

Ondorengo lerroetan bi kontzeptu hauen arteko harremanak azaltzen saiatuko gara.

Lehen ikusi dugun legez, normalizazioa prozesu konplexua da eta helburu askori erantzun behar izaten zaio horrelako prozesu batean.

Normalizazioa ez litzateke benetako izango ahozko literaturaren, esaera herrikioen eta literatura landuaren freskura, zaporea eta edertasuna hizkuntzari ukatuko balitzaizkio ere.

Normalizazio-prozesu honetan badago gure eginkizunarekin guztiz lotuta dagoen eta hizkuntz plangintzaz arduratzen diren espezialistek biziki azpimarratzen duten beste zerbait: modernizazioa.

Hizkuntza menperatuek presentzia sozial handiagoa zuteneko langintza, tresna eta eragiketa asko eta asko betirako galdu dira eta gizarte industrializatuak etengabe sortu ditu horien ordeztiko berriak eta itxura gabe ugaritu ditu. Hizkuntza horiek, deus gertatu ez balitz bezala, zaharkitzen joan ziren. Beraz normalizazioaren ezinbesteko zeregina da modernizazioa, eta honek hizkuntza tekniko berezituaren sorkuntza suposatzen du.

Bestalde, hizkuntzak gizartean bere lekua berreskura dezan komunitateak nahi duenean, erabaki politikoaren bitartez bideratu behar izaten da eskabide horren erantzuna eta hori erakunde politikoaren lana da.

Hizkuntzalariek, hizkuntz akademiek eta beste erakunde batzuk hizkuntzaren beraren arazoez arduratu behar izan dute.

Egia esan, hizkuntzalari askok muzin egin izan dio hizkuntzaren estandardizazioari eta hizkuntzalaritza arauemaile edo preskriptiboari. Hauek hizkuntzalaritarien lana deskriptiboa dela diote eta inoiz ere ez preskriptiboa.

Ez dira eritzi horretakoak izan beste hizkuntzalari batzu eta badirudi hizkuntza menperatuak dauden edo egon diren lekuetakoak direla, hain zuzen, hizkuntzalaritari arauemaile izan dadin eskatzen diotenetako batzu.

Euskara Teknikoaren kasuan, bikoitza da jokabide deskribatzaile hutsa ez egokitzen jotzeko arrazoiak: bata, hizkuntza menperatua eta, beraz, atzeratua izatea eta, bestea hizkuntza teknikoa izatea. Gaur gaurkoz ez dugu erakunde arauemailerik euskara teknikoaren arloan, zeren Euskaltzaindiak esana bait du, 1981 urteko abenduaren 28ko Hondarribiko bileraren ondorio bezala, hiztegi teknikoaren arazoa ez

duela ukituko, eta horixe da oraingoz Euskal Herri osoarentzat hizkuntz arauak ematerakoan itzala duen erakunde bakarra.

Beste nazio batzutan Akademiez gainera izaten dira beste erakunde batzuek ere hizkuntza teknikoaren arloan arauak ematen dituztenak.

Erakunde hauek ISO erakundean biltzen dira nazioarteko mailan.

4. HIZKUNTZA TEKNIKOAREN EZAUGARRIAK

Hizkuntza teknikoaren alderdirik bereziena terminologia da, zeren sintaxi eta estilo aldetik testu teknikoak izaten dituzten berezitasunak bigarren mailakoak bait dira.

Terminologia teknikoa berriz, jakintzaren eremu jakin bateko espezialistek beren artean eta beren lanbideko arazoek hitz egiteko erabiltzen dutena da. Ezaugarri hau, ikus daitekeenez, soziologikoa da linguistikoa baino gehia-

go; baina izan ere termino bat teknikoa izango da disziplina bati dagokion neurrian, ez berez duen ezaugarriren batengatik.

Termino tekniko asko hizkuntza arruntetik hartzen dira, eta espezialistek modu teknikoan erabiltzen dituztenean bakarrik hartzen dute balio teknikoa.

Biunibokotasuna bilatzen da disziplina baten barnean kontzeptuen eta terminoen artean. Sinonimia eta homonimia gaitzetsi egiten dira. Hizkuntza teknikoan anbiguotasunari eta zehazgabetasunari ihes egin nahi zaio. Sistema bezala trinkoa da, hots, hizkuntza teknikoak hitzun teknikoaren adimean sortzen duen kontzeptuen multzoa askozaz zorrozkiago egituratua eta landuagoa da gai beretsuz hitz arruntez adieraz daitekeena baino. Hizkuntza poetikoaren beste muturrean dago, ia denean, hizkuntza teknikoa. Hizkuntza teknikoan, terminoak konnotazio eta afektibitatez guztiz soilduta daude.

LA ALFABETIZACION TECNICA

La alfabetización técnica no supone más que una parte de la planificación lingüística general. Su objetivo es el de ayudar a las personas cuyos estudios los han realizado en castellano o francés (en nuestro caso), a utilizar el euskera tanto hablado como escrito en su vida profesional.

La alfabetización técnica posibilita la elabora-

ción personal del lenguaje utilizado en el campo profesional, requiriéndose previamente para ello la alfabetización en temas no especializados.

La característica diferenciadora del lenguaje técnico es la terminología ya que las diferencias de estilo y sintaxis, en este caso, pasan a un segundo plano.

L'ALPHABETISATION TECHNIQUE

L'alphabétisation technique n'est qu'une partie de la planification linguistique générale. Son objectif est d'aider les personnes qui ont suivi leurs études en espagnol ou en français (il s'agit là de notre cas) dans l'utilisation du basque tant écrit que parlé dans leur vie professionnelle.

L'alphabétisation technique permet l'élabora-

tion personnelle du langage utilisé dans le champ professionnel, étant requise au préalable l'alphabétisation dans les sujets non spécialisés.

La terminologie est la caractéristique différenciatrice du langage technique puisque les différences de style et de syntaxe, dans ce cas-là, sont mises dans un deuxième plan.

SPECIALIZED LITERACY

This specialized literacy is only part of the general linguistic planning. Its aim is to help people who had their schooling and further studies in Spanish or French (in our case), to use both spoken and written Basque in their professional life.

This specialized literacy enables the personal

working-out of the language used in one's professional field, which will also require a previous knowledge of non-specialized Basque.

What best characterizes this technical language is its terminology since the differences in style and syntax, in this case, are less marked.